

ZULO MADARIKATUAK!

Jostirudia

Euzko oituraren ager-gaya

Bi egintza ta lau ager-alditan

AGERLIAK EDO IRUDIGILLEAK

LUKAS	ardotegiko jabia
ILARIO	baserritar gaztia
GERGORIO	baserritar gaztia
AMORRATU	erariyak galdua
LANDAZURI	tratalariya
JOSE MANUEL	baserritarra
PELLO	baserritarra
PERNANDO	baserritarra
MIGEL JAUNA	abogadua
MIKELA	neska gaztia
KANDIDA	neskamia
JOXE	mutil gaztia
KAXILDO	baserri oneko gizona
ATANAXIO	baserri oneko gizona
Mutill koskorak ta erriko gizonak	

Gertaera Gipuzkoako erritxo batian

AURRENEKO EGINTZA

AURRENEKO AGER-ALDIYA

Iruditegiya agertuko da moztuba, erderaz *teatro* edo antzokiko izkeran *telon korto* deritzayonez. Telon korto onek agertuko du erri txiki bateko enparantza edo *plaza*, gero irugarren ager-aldiyan biar dan lez. Iruditegi laburtxo au aski da aurreneko ager-aldiya egiteko, ta bigarreneko biar dana egongo da antolatuba, bere garayian telon korto-ko oyala igo ta agertzeko.

1. IRUDIA

Amorratu ta mutil koskorak

(Nabaituko da barrenen ixkamill aundi bat, ta agertuko da eskuitatik Amorratu balantzaka mozkor-mozkor egiña. Erdiratzen danian gelditu ta biurtuko da ondorendik datozkiyon mutill koskorak ikusteko. Orduan agertuko dira parrez ta ojuka, ta bat aurreaturik abestuko du doñuan).

MUTIL BAT	Amorratu mozkor dator kalia dinbili danbala bete betia. <i>(mutil guztiyak parrez)</i>
DANAK	Eeee... Amorratu mozkor dator kalia dinbili danbala bete betia. <i>(Amorratu'k begiratu ta ukabilla altxa ondoren biurtu ta jarraituko du poliki-poliki ezkerretara)</i>
MUTIL BAT	Baziak berriz tabernara... Asmatu ezetz atia... ara... ara... <i>alezpanuartzen! alezpanuartzen!</i>
DANAK	Bat... bi... iru... eee...
MUTIL BAT	Asmatu dik... Bapo Amorratu! Bapo!
MIKELA	Zer?
DANAK	Bapo!!

BIGARREN IRUDIA

Mutillak, Gergorio ta Mikela

GERGORIO	<i>(Eskubitatik juango da Mutil baten gana eta emango dizka bi masalleko)</i> Zer egiten dek emen? To... To...
MUTIL BAT	Ai... ai... ai... <i>(negarrez)</i>
DANAK	Bere aita! Bere aita! Guazemak...

GERGORIO Negar egiten dek?... To ba berriz...
 MIKELA *(ezkerretatik)* Utzi akiyok aur gaxu orri.
 GERGORIO Nai badet.
 MIKELA Gizona, bazekiat iria dala, bañan ez ukan zer jorik
 Amorratu lotsagarri orren ondoren datozelako. Ura ta
 beste alako asko zatitu biar litukek.
 GERGORIO *(berriz mutilla buruan juaz)* Ua azkar ortikan etxera!
 MIKELA A petrala! Besten petrala!
 GERGORIO Iri ere azkar egingo diat beste ainbat.
 MIKELA Obeko dek emakumiak eta aurrak joka asi... A zer
 gizona i!
 GERGORIO Mingaña kenduko diat juaten ez-paiz ortikan aguro.
 MIKELA Ire bildurrak ez... ja... ja... ja!
 GERGORIO Par gutxi neri... bestela...
 MIKELA Zer?

IRUGARREN IRUDIA
 Lenguak eta Joxe

JOXE *(Gergorio'ri)* Ua ire bidean orri pakian lagata.
 MIKELA Bai, zuaz Amorratu'ri lagun egitera.
 GERGORIO *(aopian esan ta junaz)* Berritsu ori...
 JOXE Zer zenuten?
 MIKELA Utsa: esan diyotelako gaizki egin dubela semia jotzia,
 suak arturik, ta neoni ere jo egin nai niokan.
 JOXE Etzunan ortaratuko.
 MIKELA Zenek zekik...? Nola ondotxo oitua ziokan... bere
 emaztiakin.
 JOXE Jo egiten al din?
 MIKELA Maiz asko, aditzen detanez. Gizon askorena:
 ezkongayetan goxo, ezkondu ta otso.
 JOXE Danak ote ditun onela?
 MIKELA Danak? Eztiat uste... Gure etxian dan gizona, nere aita,
 eztek orrelakua, ta beste geyo ere izango dituk... Orain,
 zein diran, nola asmatu?
 JOXE Orren gaitz al den?
 MIKELA Txit gaitz... ja... ja... ja...
 JOXE Nora ua Mikela?
 MIKELA Etxera. Aitakin etorri nak perira, Pernando'ri erosi zio
 bei bat eta txurruptat eranaz jua dek ire aita ta
 Pernando'kin tratua itxitzera. Ta ni illundu baño len
 niak etxera.
 JOXE Ni ere aitakin etorri nan, bei gorriyak, ordu txarrian
 gure etxian sartu zian bei gorriyak saltzera!
 MIKELA Dema galdu zutenak?

JOXE Bai.
MIKELA Zertan ibiltzen dek ire aita orretan?
JOXE Tabernan berotzen ditene... Orainguan lagako dizkin...
MIKELA Obe zubentzat.
JOXE Ainbat.
MIKELA Agur Joxe...
JOXE Nai al den nik lagun egitia?
MIKELA Bakarrik juango nak. Begi askok ikusiko giotzik, ta mingain asko jarriko genizkikek dantzan.
JOXE Bi begik ikustia ta mingain bat erabilli arazitzia naikua niken.
MIKELA Eorrenak?
JOXE Ez... eorrenak.
MIKELA Aja... ja... Ezagun dek periyen ibilli aizela.
JOXE Etxian kalte egiten dubena botatzen ta ordaintzat... etxian on egingo lukenen billa.
MIKELA Eztek gaizki esana. Guazen?
JOXE Guazen.

AURRENEKO EGINTZA
BIGARREN AGER-ALDIYA

Iruditegiyak aurkeztatzen du ardotegi bat. Eskubitan dago *mostradore* bat, gañian, aurre aldetik, zurezko *errejakin* itxi bat dubela, ta andik zintzilik ta etzanak firiyo sortak, ogiyak eta abar; atze aldian berriz daka zagi-ardo bat inguruan *baso* batzubekin ta erdiyan euliyak arrapatzeko ontziya. Orman, *mostradore* atzian, apal batzubek botill ta beste ontziz betiak, ta ageri-ageriyan iru barrika txiki Koñak, Kaña ta Anisete, izendatuak daudenak. Ezkerretan mai aundi bat bi albueta alki luze bana ditubela; atzian beste txikiyagoko bat. Sarrerako atia da ezkerretan aurre aldetik, ta atzian, *mostradore* barrendik, beste bat. Ormak zikiñak, kez beztuak ta dana oso arlote ta illun. Gaba da, ta argitzeko eztago petroliozko kinke bat baizik edo bestela bere aritik zintzilik ta utsik *elektrikako bonbilla* bat.

LAUGARREN IRUDIA
Ilario, Gergorio, Lukas eta Amorratu

(Ezkerretako mayian eserita, mostradoriari aurre emanaz Ilario ta Gergorio. Atzeko mayian Amorratu bakarrik, botilla ardua aurrian dubela. Ez izanagatik zarra da gizon erariyak urtiak baño lenago mendeatua dakana. Mozkor jatorren itxura arpegiyan dauka. Egongo da batere itzik egin gabe, ta ezer entzungo ez balu bezela, be-aldera begira, noizian bein altxiaz burua, luak eta erariyaren astuntasunak makurtzen diyotena, ta era orretan jarraituko da, aldiz ardua eranaz, irten artian).

LUKAS Etzekiat nik guk nola bizi bear degun. Ayuntamentua batetik, Diputaziya bestetik, milloi-dunak bagiña bezela gu nundik larrutu zelibietzik.

ILARIO Petxak kentzia baño errexago da jartzia.

LUKAS Kendu bearko dizkitek ba, bestela zerbait asmo artzeko gayian arkituko nak.

ILARIO Gizona, etzazula orrenbeste negar egin. Zu berdindua zaude ardoari ur geyo botiakin.

LUKAS Zubek ez ezagutuko!

GERGORIO *(itz egingo du aots me ta argiyakin; da igarra ta gizon antz gutxikua. Ilario da mardula)* Nik bai beñepin! Bai ardua ta bai pattarra senduak eta eztarriya ondo garrastuko dutenak bear ditut.

ILARIO I bezelako gizonak, jakiña dek.

GERGORIO Ire beldurrik ez diagu ba iñongo aldetan.

ILARIO Itxura aundik ez dek ba, monjaren arpegi orrekin.

GERGORIO Kristo'k *guarda*, neri orrelako gauzik esan!

ILARIO *(parrez)* Maya zulatu dek!
GERGORIO Nik txinistu! Baita ire garrondua lo ere azkar asko.
LUKAS *(keñu Ilario'ri egiñaz)* Gaizki egiten dek Ilario, ola Gergorio'rekin aritzia. *Pruebak* emana zioz gizona dala: bi bider egon dek *kartzelan* mutur-joka ibillita.

GERGORIO Bai motel... senduak emanta.
ILARIO Emanta edo artuta?
GERGORIO Emanta, emanta... gauza izan bear orretako ere.
ILARIO I gizon aundien bat aiz!
GERGORIO Ik uste dekan baño aundiyagua... aja-ja...
(...)

LUKAS Jakin al dezute gaurtik tabernariyak lege berriyak ditugula? Amaiketan zeaten danok atariyan jarri ta atia itxitzeko aginduba zekagu.

ILARIO Beaz, amaikak arte bakarrik egon bear ko diagu?
GERGORIO Amaikak arte? Gezurra dek! Ez niok ni amaiketan etxe zuluak sartzeko.

LUKAS Atariyan geldituko aiz ba.
GERGORIO Nor da agindu dubena? Alkatia?
LUKAS Bai.
GERGORIO Jakiña dek: praileak edo erretoreak beartuta. A gizarajuak! Uste ditek beren berriketakin tabernako gure gizartea galduko dutela. Aja, ja, ja! Zazpi urte badituk *konpesatzera* jua ez naizela, ta goguak ematen ziaz zer ordutan gabero etxeatzen naizen esatiaren gatik orain bertan joatea.

ILARIO Etxakela esan gabero, bai goizero.
GERGORIO To! Eorrek gogoaztenak zer egin lezateken oyek.
LUKAS Konpesatzera jua?
GERGORIO Ez, ez, eztek ori... Ik egin bear dek itxi amaiketan ta gero amabiyetan iriki, ta nola ordu ori ezkeroko beste eguna dan, alkatearen aginduak ez au arrapatzen.

ILARIO Ederki sortua! Aja, ja, ja!
LUKAS Ederki esana!
GERGORIO Bai ba: urrengo egunakin eztik oraindik alkateak agintzen.

BOSTGARREN IRUDIA
Lenguak eta Landazuri

(Landazuri'k ditu berrogei urtetik gora. Dator jantzia ganadu tratuan ibiltzen diranen antzera, blusa luzia goyan patrikakin ta eskuan makil sendua).

LANDAZURI Gabon.

DANAK Bai zuri ere. (*Landazuri'k keñu eginda eramango du Lukas mostradorea ta ateraik patrikatik boltsa bat emango diyo ixilik. Bitarte onetan bestiak erango dute ardua botillatik basuetara botata*).

LANDAZURI To au, gorde zak ondo.
LUKAS Gorde? Zer dago emen?
LANDAZURI Urria.
LUKAS Asko! Nundik dakarrek?
LANDAZURI Esango diat gero; *kanbiyatzeko zekaizkiat*; gorde itzik ondo. (*Lukas irtengo da mostradore barrengo atetik eta Landazuri etorriko da bestietara*)

GERGORIO Ardo piska bat tori.
LANDAZURI (*artu, eran ta basua biurtuaz*) Eskarrikasko.
GERGORIO Periyen al ziñan?
LANDAZURI Ez, bañan ikusi det.
ILARIO Ederra al zeon?
LANDAZURI Ederra. Ez dakizutela zer ganadu saldu diran?
ILARIO Lau ankekuak.
LANDAZURI Bi ankeko abere galantak badira ba.
GERGORIO Aja, ja, ja! Sartu zio!
ILARIO Neri?
GERGORIO Ondo-ondoraño... Aja, ja, ja!
ILARIO Ire gatik esango zikan, bei urruxa dirurik eta.
GERGORIO Bai bañan ernaya, ez i bezela antzua.
ILARIO Ik ditukan euliyak izatekotan obe dek batere ez izan.
GERGORIO Euliyak? Orain ere kaiku bana esne ta launa talo jango zizkitekan.

ILARIO Aste betean ez diyotek ik orrenbeste opa. Geitxo bear dek ik eorrentzat.

GERGORIO Praile sartu al aiz sermoyak orren merke egiteko?
LANDAZURI (*artuko du Lukas'ek ekarriko diyon baso ardua ta eseriko da mayian bestien aurrian*) To! Ez lukek gaizki egongo, guriya zio: begira akiyok bigarren kokotzari.

GERGORIO Orregatik, nere etxera etorriko balitz eskian, a zer kankarrekua artuko luken. (*Gergorio'k itz egitez bukatzian joko du Amorratu'k botillaz maya*)

AMORRATU Kan, kan, kan...
ILARIO Atian dek bat.
GERGORIO Prailia? Ekatzak botilla.
LUKAS Amorratu dek ardo eske.
GERGORIO (*Amorratu'ri*) Zer da gaur, amorraya edo lupiya?
AMORRATU (*Begiratuko dio Gergorio'ri, gero Lukas'i ta irugarren botillari, ta orduan esango du eskuan baso-ardua artuta abora damala*) Ardua!

LUKAS Beriala (...)

ILARIO Etzenuteke biyak uztarri txarra egingo; ezta ala Landazuri?

LANDAZURI Oyek egingo luteken baño obia ikusi det nik gaur.

ILARIO Izan ere, len asi zera zerbait esaten.

LANDAZURI Ez dezutela asmatzen zein idi pare saldu dan gaur?

LUKAS Etxetxuriko Jose Manuel'en idi gorriyak.

ILARIO Igandean dema zutenak?

LANDAZURI Bai; ik nola dakik?

LUKAS Emendik eraman ditulako.

GERGORIO Aguro aspertu ditek.

ILARIO Igandean gertatu zitzayonakin ez dek gutxigotako. Urte bete osoan iduki dizkik gizentzen, ta nola!, ganbaran zeukan arto guztiya jan-erazirik.

GERGORIO Orrengatik zioztikan orren guriyak.

ILARIO Ta beste iri argal ayek irabazi! Txinista nazute, ta ikusi ez banuben neonek dema, Jose Manuel'en larriya ta nola erruz galdu zuen dirua, ezpeen batekin geldituko nukan.

GERGORIO Asko jokatu al zan?

ILARIO Asko ta asko; emengo guztiyak erruz galdu genikan.

LANDAZURI *(Par-irriyan)* Guztiyak?

ILARIO Guztiyak ez; zuk ez.

LANDAZURI Ik zer dakik?

ILARIO Zure esanaren gain sumatzen det.

LANDAZURI Baliteke, baliteke.

GERGORIO Asko irabazi al zenduen?

LANDAZURI *(Erantzuteako par txiki bat ta ezpañak eskuz igurtzi)* Juan dan igandeko galera eramaten badu berriz Jose Manuel'ek, semearen soldadutzako diruak arrotuko ditu.

ILARIO Ez luke atsegiña artuko Joxetxo kinto eramanta.

GERGORIO Mutil ona dek baña... eztik gizarterik.

LANDAZURI Etxeako obe.

LUKAS Olakoakin nik kaltia izango nitek bañan bai ik ere. Etzenuteke dema askorik ikusiko.

LANDAZURI Arrazoi dek, bañan etxe aldeako alakua obia dek. *(azkeneko itz abek esango ditu mai gañian zeuden kartak eskuan nastutuaz)*

SEIGARREN IRUDIA

Lenguak, Jose Manuel, Pello ta Joxe

JOSE MANUEL *(barrendik atariyan gelditu diranai)* Atoz gizona, bereala irtengo gera... txurruptat gizona... ezetz... ezetz... ator ire, txala or lotuta *(biyak sartuaz)* Gabon.

PELLO Gabon jaunak.
DANAK Gabon.
LUKAS Ongi etorri.
JOSE MANUEL *(mostradore aurrian)* Bete kuartillo bat.
ILARIO Aitatu deguneako bera.
LANDAZURI Maiz gertatzen dana; guazen jokuan irurok?
ILARIO Ez ni zurekin, ditutan txanponak garbitzeko.
LANDAZURI Ez gizona, ez ni aña bazera.
GERGORIO Bota, bota.
(Jose Manuel'ek artuaz botilla eskuan beteko du erdiraño baso bat eta emango diyo Pello'ri; arrek egingo du berdin berak eta irugarren aldiz betetzen dubenian ots egingo diyo semiari)

JOSE MANUEL Joxetxo, ez al ator?
JOXE *(Barrendik)* Banator beriala.
JOSE MANUEL Pello, berriz? *(Berriz ardua eskañiyaz)*
PELLO Ez.
JOXE Gabon jaunak.
DANAK Gabon.
JOSE MANUEL To!
(mostradore gañian botilla utzi ondoren etorriko da aurrera eskubitara Pello'kin. Jose Manuel dator akullu ta soka batekin. Da baserritar oso bizi eta zainduna, mia ta zimela: dakaizki galtza arizko urdiñak, bluxa beltxa galtzen barrenan sartua, ta dana gerriko urdin batekin lotuba; boina txit txikiya. Itz egingo du esanari eskuakin lagunduaz, maiz gorputza ta batez-ere buruba zuzenduaz. Eskua burura eramaten dubenian ez da azkureka aritzeko, baizik bizi bizi eraingo diyo boinari batera eta bestera, kopetara ta garrondora. Jas! jartzen duben lekuan egin biar du ez jas izki edo letra oyekin esaten dan itza baizik arnasa gogor bat buruba jetxiyaz esateko ta iguaz esan ondoren –jas jartzen det nola bait ere argiratu biar nubelako esan-egite ori–. Pello ere dator jantziya blusaz bañan ez galtzaren barrendik; izketan eta egite guztiyetan da patxara geyagokoa)

JOSE MANUEL Jas! Nigatik Pernando'k ori esan? Nigatik? Jas!!
PELLO Ta topatu al zenduen?
JOSE MANUEL Topatu? Ez nai aña azkar. Larri zan ikusi nindubenian bera gana juaten. Jarri naiz bat-batian bere aurrian onela, tente, ta egon ni. Jas! lotsak bota bear zuben ta ala diyo *(esango du bakoitzena bere doñuban)*
-Kaxo, Jose Manuel.
-Zer geyo?
-Geyo...
-Bai.

-Zer nai dek ba esatia?
 -Nigatik ik esan dekana.
 -Nik?
 -Ik, txatxu ustel orrek, ik... Esantzak orain aurrez-
 aurre... Orain, ez atzetik... Jas!!
*(aterako du Jose Manuel'ek zigarro-sorta eta emango
 diyo bat artzeko Pello'ri; gero sutuko dituzte biyak
 bakoitzak beren poxpoluakin)*

GERGORIO Joxe, nai al dek jokuan egin?
 ILARIO Jarri ari laugarren.
 JOXE Ez, beriala jua bear degu etxera.
 LANDAZURI Zer damazute?
 JOXE Ez da guriya; bei bat Pellok artsaldian, periyen erosi
 dubena.

LANDAZURI Zeni artu diyo?
 JOXE Fernando Kaxko'ri.
*(bitarte onetan altxako da Amorratu mayetik, etorriko da
 mostradorera ta ateratik galtzaren patrikatik
 guardamuna xar bat bilduko ditu txanpon batzubek eta
 jarriko ditu gañian. Lukas'ek ikusirik diña ez dagola
 esango diyo)*

LUKAS Batena; bota besteara. *(Amorratu geldituko zayo
 begira)* Kuartillu batena eman nazu ta bi eran dituzu
(aterako ditu txakur batzubek eta botako dizka)
 Oraindik beste zakur bat. *(Amorratu'k egingo du juatea)*
 Beste zakur bat palta dala.
*(Artuko du berriz guardamauna ta begiratuaz batera ta
 bestera aterako du zakur bat eta emango diyo
 mostradore gainetik Lukas'i eskura. Gero poliki-poliki
 bañan seguru, mozkor oitura aundikuen antzera, ezer
 esan gabe, irtengo da atarira)*

GERGORIO Amorratu, gabon!
*(begiratuko diyo geldi aldi txiki bat eginda, ta jarraituko
 du itzik esan gabe)*

JOXE Ikusiko al du orrek beya?
 JOSE MANUEL Ua, ua, begiratzera.

ZAZPIGARREN IRUDIA

Ilario, Gergorio, Lukas, Landazuri, Jose Manuel, Pello ta gero Joxe

PELLO Itxura ederra gizon batentzat.
 GERGORIO Ez larritu, ez da galduko ta. Zu baño zuzenago juango
 da ori etxera.
 PELLO Ni baño? Ala uste al dek?
 ILARIO Onek uste du bera bezalakuak dirala guztiyak.

GERGORIO Zozuak beliari ipurdi beltz.
 ILARIO *(zakar)* I bezin mozkorra izateko asko palta diat.
 GERGORIO Bai, bai, bai...
 ILARIO Eran arren ez nak ibiltzen i bezela lerdia dariyotala.
 LANDAZURI A zer bi gizon!
(Jose Manuel'ek bitarte onetan ematen diyo Lukas'i arduaren dirua)
 PELLO Gizon ez... gixon.
 GERGORIO Artuko zenduke zure alabarentzat ni bezelako bat.
 PELLO Ire antzekua artzekotan onezkero berrogei billatu zizkikan.
 GERGORIO Premiyan dago ba; Marquesen bat topatu nai al diyozu? Arrazoi dezu bai... Aja, ja, ja! Anton-mobilla dubena obe dezu... pa pa pa pa juaz ibiltzeko.
 DENAK Ja, ja, ja!
(Jose Manuel ta Pello ez beste guztiyak egingo dute algara)
 GERGORIO Bañan nik uste det orduako neska-zarren bizarrak sudur-pian aterako zaizkala... aja, ja, ja! ta orduan, kitol!, pa pa pa... pi pi pi egingo diyote. *(danak algaraz)*
 JOSE MANUEL *(Botilla ardua ta basua eskuan ditubela)* Zer ari da berritsu ori?
 PELLO Arduak esan-arazitzen dizkan txatxukeriyak esaten.
 GERGORIO Zu, ez nago gero ni mozkorra, ni diña naiz.
 JOSE MANUEL Etzakela esan diña aizenik, bañan diña dakakela.
 GERGORIO Berriketako gogua ekarri dezu?
 JOSE MANUEL Ez irekin aritzeko.
 GERGORIO Ez, obe dezu Pello'kin ari... ia semiarentzat ematen dizun alaba.
 PELLO Utzi akiyok nere alabari pakean; ire andrea baño obeto egongo dek.
 JOSE MANUEL Ez da gaitz! Orain ere ikusi nai badezu, an egongo da sukalde baztarrean edo ukulluan iru edo lau xankogorri gosiak dituela.
 GERGORIO *(altxatuaz)* Gezurra!! Talua ezik ogiya ere nai ezik izaten da etxean.
 JOSE MANUEL Ik bai bañan etxean...
 GERGORIO Laga pakean nere etxeari ta molda zazu zuk zuria. *(Pello'ri)* Ta zu zuaz zure neska-zar gayari kontu egitera. *(sartuko da Joxe)*
 PELLO Berritsu ori!
 GERGORIO Ea: esan iy-iy...
 JOXE Guazen aita.
 GERGORIO Zuazte bai, andriak asarretu ta jipoitu gabe.
 JOSE MANUEL Ez nak ni juango iri bi masalleko eman gabe.
 JOXE Utzi bezayo berritsu orri pakean ta guazen.

GERGORIO Zu poxpolo, kontu mingañari.
 JOXE Ik gorde zak iria.
 GERGORIO Presa aiz; errosariyua errezatzeko al dakak?
 JOXE Agiyan bai.
 GERGORIO Obe dek orduan jua... ja, ja, ja! errosayua.
 PELLO Guazen, Jose Manuel.
 JOSE MANUEL Eztet nai, zuazte zubek; beste baso bat ardo eran biar
 det. *(semeari)* I etxea orduko an nak ni ere.
 JOXE Pello, guazen ba gu... *(aitari)* Azkar etorri.
 JOSE MANUEL Bai.
 PELLO Gabon.
 DANAK Gabon.
 GERGORIO Eskumuñak erretoriari ta...
 PELLO *(ate ondotik)* Zer?
 GERGORIO Zea... Bayetz... ja, ja, ja! Pa pa pa pa... pi pi pi pi...

ZORTZIGARREN IRUDIA

Ilario, Gergorio, Lukas, Landazuri ta Jose Manuel

(...)

LUKAS Tori. *(Jose Manuel'ek eran)*
 GERGORIO Gizona, ori da kopeta dakazuna.
 JOSE MANUEL *(burua luzatuaz)* Iri zertzaik?
 LANDAZURI Ez gero emen buruakin ari jokuan asi.
 LUKAS *(baso arduak ekarriaz)* Ariya? Eder askua Jose
 Manuel'ek badu. Gurituko zenduen onezkero?
 GERGORIO Badu ba Ilario'k orrenaren beldurrik ez dubena.
 LUKAS Bai ote da?
(Jose Manuel'ek erango du ardua ta geldituko da ixilik)
 LANDAZURI Zer denborakua dek?
 ILARIO Irugarren urtian dijuana.
 LANDAZURI Len jokatu al du?
 ILARIO Ez.
 LANDAZURI *(Jose Manuel'i)* Ta zuria...? *(eztiyo erantzungo ta berriz
 belarrira)* Zuria?
 JOSE MANUEL Zer bear diyozute nereari? Utzi zayozute pakean.
 LANDAZURI Orrenbeste ikaratu al zera jua dan igandeko
 demarekin?
 JOSE MANUEL Ni ikaratu? Zerk?
 LANDAZURI Eztakit ba nik... diru pixka bat galtziak edo...
 JOSE MANUEL Ez orduan galdu nuenak eta ez orain jokatuko detanak
 ikaratzen nau ni... Jas!! Ogei duro nere ariyaren alde,
 datorren larunbateko periyari jarri nai badezu neriaren
 aurrean!!
 LANDAZURI Badijua.

JOSE MANUEL Bota siñalia.
ILARIO Zenbat?
JOSE MANUEL Bost duro.
ILARIO Ez ditut.
LANDAZURI Jarriko dizkiat nik.
JOSE MANUEL *(maigañea botiaz)* Bat, bi, iru, lau, bost.
LANDAZURI *(arrek bezelaxen)* Ara beste bost orrenak: bat, bi, iru, lau, bost.
LUKAS Jasoko al ditut nik?
JOSE MANUEL Jaso itzik *(Landazuri'ri)* Nai badezu beste bost durokoen bat nere kontra egin...
LANDAZURI Aberatsa al zaude?
JOSE MANUEL Zu baño aberatsago beti; len eta orain.
LANDAZURI Asko esatia da ori.
JOSE MANUEL Esan ta izan. Jas!! Nai dezu jokatu nork diru geyago atera?
LANDAZURI Poliki ibilli geo e! Urretan ere beteko det nik zuk ateratzen dezun guztiya ta.
JOSE MANUEL Urretan? Bota bereala.
LANDAZURI Zer dijua?
JOSE MANUEL Jartzen degun guztiya.
LANDAZURI Zeñek altxatzea?
JOSE MANUEL Geyoan gelditzen danak.
LANDAZURI Bota ba, badijua.
LUKAS Itxon, itxon; tajuz asi bear da apostura ori.
GERGORIO Ori dek apostura!
ILARIO Erotu egin dituk.
(erango dute ardua ta altxako dira danak mayetik, Jose Manuel'ek askatuko du gerrikua ta azkenengo muturrian bilduta dakan poltxa atera ta artuko du eskuan. Lukas'ek ekarriko du aurrera Amorratu egon dan maiya ta garbituko du zatar batekin. Jarriko dira danok mai inguruan; Gergorio ta Ilario atzian, Landazuri eskubitan, Lukas aurrian exerita, eta Joxe Manuel aurrian zutik. Landazuri'k aterako du blusa luziaren barrengo patrikatik larruzko boltsa bat lokarriz lotua, ta alde batera ekarriyaz esango diyo Lukas'i bestiak ezer nabaitzen ez dutela)
LANDAZURI I, ekarri nazak urre poltsa; irabazi ziyuat iri gorriyen dirua.
LUKAS A gizarajua! Ja, ja...! *(Irtengo da mostradore barrengo atetik)*
LANDAZURI *(Jose Manuel'i)* Bakoitzian zenbat diru jarri bear degu?
JOSE MANUEL Nai dan aña.
LANDAZURI Ondo dago.
ILARIO *(Gergorio'ri)* Egundo eztiat ikusi onelako aposturik.

GERGORIO Ez nik ere... Zenek irabaziko ote du?
 ILARIO Azkar ikusiko diagu.
 JOSE MANUEL Asiko al naiz?
 LANDAZURI Bota!
 LUKAS *(atian agertuaz)* Itxon, itxon ni etorri arte.
 GERGORIO Zabiltz ba azkar.
 LUKAS *(Landazuri'ri ixilik boltsa emanaz)* To, astun ziok au.
 LANDAZURI Patrikan ere orrentzako diña bazekat.
 LUKAS *(mai aurrian eseriyaz)* Asi orain.
(bakoitzak egingo du pilla bat. Botako dute aldan guztiyan zillarra eta besteik ezian papera. Ilario ta Gergorio begi-aundiz arriturik begira, Landazuri alai xamar ta Jose Manuel danari begira)

JOSE MANUEL Bost.
 LANDAZURI Bost.
 JOSE MANUEL Bost.
 LANDAZURI Bost.
 JOSE MANUEL Bost.
 LANDAZURI Bost.
 JOSE MANUEL Amar.
 LANDAZURI Amar.
 LUKAS Milla errial!
 GERGORIO Ederki zia!
 ILARIO Bai mutil!
 JOSE MANUEL *(Gero beruago)* Amar.
 LANDAZURI Amar.
 JOSE MANUEL Amar.
 LANDAZURI Amar.
 JOSE MANUEL Ogei.
 LANDAZURI Ogei.
 LUKAS Bi milla ta...
 ILARIO Ta oraindik igoko dana!
 GERGORIO Zaudezte ixilik.
 JOSE MANUEL *(asiko da piska bat larritzen bañan erakutsi gabe)* Ogei.
 LANDAZURI Ogei *(gordeko du patrikan larruzko boltsa ta aterako du urreduna. Ikusirik ori Jose Manuel'ek bizi-bizi, boina eskuakin begitaraño sartuta, makurtuko da mai gañera ta itxumustuan jasoko ditu bere diruak, ezkutatuaz pizkor galtzen patriketan)*

JOSE MANUEL Jas! Jau! Neria da! Neria da! Nik irabazi det!
 DANOK Oi!!
 LANDAZURI Zer egiten dezu...? Laga ori aguro!
 JOSE MANUEL Neria da, neria da.
(emendikan aurreako guztiya oso bizi, alkarren gañian eta iruditegiyaren aurrian)

LANDAZURI Laga aguro!

JOSE MANUEL Ez dezu urretan bete.
LANDAZURI Urretan? Ta zer diyo?
JOSE MANUEL Neria dala... Nik irabazi det.
LANDAZURI Gezurra! Ez dezu irabazi orain arte.
JOSE MANUEL Bai.
LANDAZURI Ez. Bota dirua.
JOSE MANUEL Eztet nai.
LANDAZURI Bearko... Lapurra!! *(elduko diyo lepotik Jose Manuel'i ta asiko da Lukas apartatu nayian, bañan Ilario'k eta Gergorio'k galeraziko diyote esanaz)*

ILARIO Laga pakian biyari!
GERGORIO Kendu zu ortikan.
ILARIO eta
GERGORIO Leku! Leku!
(zalaparta ta ots aundiyarekin asiko dira burrukan, alkarri elduta, ta trabatuta lurrera datozenakin batian itxiko da iruditegiya)

AURRENEKO EGINTZAREN BUKAERA

BIGARREN EGINTZA
IRUGARREN AGER-ALDIYA

Abogadu baten idazkela. Eskuitan mai aundi bat liburu ta paperez betia, atzian, orma aldera, bere exeri-lekuakin. Aurrian beste *silla* bat eta danian zabalduak beste geyo. Aurre aldian eskubi-ezkerretan atiak eta atzian, erdiyan, beste bat.

AURRENEKO IRUDIA
Kandida ta Pernando

(biyak izketan atzeko ate onduan)

KANDIDA Apur bat zaudez ba, ta esango diyot ia etorri nai duen.
PERNANDO Bai, esayozu bi itz bakarrik egin nai ditudala.
KANDIDA Esango diyot, bañan irten bearra du, eta eztakit naiko ote duen etorri.
PERNANDO Emakumia, zuaz; bi itz egiteko ez degu beta aundirik bear.
KANDIDA Banijua; zaude emen.
PERNANDO Bai.
KANDIDA Exeri zaitia.
PERNANDO Ez, berdin zait, zutik egongo naiz.
(Kandida irtengo da eskubitako atetik. Geldituko da Pernando buruauste aundi bat dubenaren antzera berez-izketan bañan itzik esan gabe: noizian bein bakarrik irtengo zayo ezpain artetik bai-ba...)

BIGARREN IRUDIA
Pernando ta Migel jauna

MIGEL *(eskuitako atetik)* Zu al ziñan?
PERNANDO Bai jauna, bai.
MIGEL Beaz bi itz nai dituzu nerekin egin?
PERNANDO Asmo ori ekarri det.
MIGEL Exeri zaitia emen. *(erakutsiyaz mai aurrian dagon silla, ta bera eseriko da mai atzian dakan exeri-lekuan)* Orain zuk esango dezu zer bear dezun.
PERNANDO *(geldi aldi bat eginda)* Ba jauna, bai... Ezagutuko du beorrek Pello Ezpeletxe'kua?
MIGEL Bai, gizon langillea ta zintzoa da.

PERNANDO Ba jauna, bai... (*geldi bakoitzian begiratuko diyo Migel jaunari, ta onen begiyakin arkitzian biurtuko du buruba jasua goi-aldera, ta gero begiyak itxirik jetxiko du lurrera esanaz orduan geldi-geldirik nai dubena. Ezpañari ta kokotzari elduko diyo eskuakin txit maiz*)

MIGEL Zerbait al dezu arrekin?

PERNANDO Arrekin edo...

MIGEL Lur kontu?

PERNANDO Ez jauna, ez... ez gera inguruan bizi...

MIGEL Diru kontu?

PERNANDO Dirua...? Gure gandik urruti ibiltzen da...

MIGEL Ganadu tratuen bat?

PERNANDO Bai, alaxen da ba.

MIGEL Idien batekin al zerate oker?

PERNANDO Ez jauna, ez da idiya... Beya da.

MIGEL Beya e...? Eta, zer gertatu zaizute?

PERNANDO Ori esateko asmoak ekarri nau ba ni gaur onera.

MIGEL Esan zazu ba azkar.

PERNANDO (*begiratuaz berari, gora ta lurrera, gero berriz berari ta gora, eta begiari itxi antze bat egiñik esango du*) Orain dala zortzi egun saldu niyon bei bat, gorriya, ederra, zortzi pitxar esne erraz ematen dubena, biziya, jatun ona eta uztarrirako iñongo idik aña baliyo dubena...

MIGEL Zenbatian saldu zeniyon?

PERNANDO Naiko merke; arren orde z artu niyon urruya ez da ezertarako gauza ta.

MIGEL Orduan truk egin zenuten?

PERNANDO Truk ez, ta truk bai. Beste bi ontzurre eman bear nazki bañan...

MIGEL Bañan zer? Zer diyozu?

PERNANDO Nik ezer ez; arrek esaten du...

MIGEL Zer esaten du ba?

PERNANDO Ez nazkiyela emango... beya gauza ez dala... ta, ez dubela nai.

MIGEL Bei ederra dala esaten ez dezu ba?

PERNANDO Bai jauna, bai: ederra, gorriya, zortzi pitxar esne ematen dituna, biziya, jatun ona eta...

MIGEL Bai, entzun dizut len ere. Ta zer arkitzen diyo?

PERNANDO Eztakit ba nik... eztul pixka bat dakala edo...

MIGEL *Lanparoyak* al ditu?

PERNANDO Ala diyo beak.

MIGEL Eta zuk?

PERNANDO Nik...? (*geldi*)

MIGEL Zure etxian zanian, ez al zuen eztulik?

PERNANDO Eztula, eztula... iñoiz zaunkada bat egiten zuben bañon...

MIGEL Esan al zeniyon ori Pello'ri?
 PERNANDO Nik? Nola esango niyon?
 MIGEL Zer esan zeniyon ba?
 PERNANDO Beyak ajerik etzubela.
 MIGEL Ta orain esaten dizu ez dubela nai.
 PERNANDO Bai, ta biurtzeko bere txala.
 MIGEL Arrazoi du.
 PERNANDO Arrazoi izango du bañan nik eztet nai, ta etorri naiz beorrek erakutsi dezaidan noletan arri beya sar-arazi.
 MIGEL (*pentsatzen egonda*) Ez det erraz arkitzen. Zeorrek diyozunez egun batzuketako eman zeniyon beya, ikusi ondoren osatzeko txalaren gain bear zan dirua; ba egokiya ez-padu arkitzen, biurtuko dizu arrek beya, zuk emango diyozu txala eta geldituko zerate biyok kito.
 PERNANDO Bai, bai... ala da, bañon... beok nola asko *exturiatuak* diran, ez al du ba zer-edo-zer sortuko ura beartzeko?
 MIGEL (*egonda*) Ez, eztet ezer sortzen.
 PERNANDO Beyak eztula...! Nun egin zayo?
 MIGEL Esaten ez dezu ba zure etxian bazekala?
 PERNANDO Beorri bai, bañan ez diyot ordian nik beste iñori esango.
 MIGEL (*par-antzian*) Sumatzen det. Nai dezu alegiya, arren ukulluan arrapatu dubela nik esatia.
 PERNANDO (*pizkor-pizkor*) Bai ba! Banekiyen nik beorrek zerbait maratilla sortuko zubela.
 MIGEL Ba... ori ezin zenezazuke esan... gezurra bai da!
 PERNANDO (*arrantuta*) Gezurra? Ta...?
 MIGEL Ez, ez, ezin zenezazuke.
 PERNANDO Meno, meno... bañan beti egiya esan bear al da!
 MIGEL Beti, al bada.
 PERNANDO Orrengatik beok...
 MIGEL Alperrik ari zera, ez dizut orrelakorik aginduko. Zuk zeonek nai dezuna esan zayozu.
 PERNANDO Meno, meno, meno... Beaz...
 MIGEL Bukatu degu; alperrik zaude; bakoitzak beria artu ta kito.
 PERNANDO (*alxtatuaz Migel aurrena ta Perno gero*) Orduan artu egin bearko det beya?
 MIGEL Bai.
 PERNANDO (Gezurra dek geyo sayatu gabe) (*patrikara eskua eramanez*) Ta...
 MIGEL Ezer ez, ezer ez... utzi zazu.
 PERNANDO Meno, meno. Ba... beste bat arte.
 MIGEL (*atia erekiyaz*) Agur.

IRUGARREN IRUDIA
Migel jauna eta Jose Manuel

(Pernando'ri agur egitea juaten danian ikusiko du Migel'ek Jose Manuel eta itz egingo diyo barren aldera)
MIGEL Zu ere emen al zera?
JOSE MANUEL *(atian agertuaz)* Bai jauna, alaba ikustera.
MIGEL Ederki, zuaz sukaldera.
JOSE MANUEL Beorrek in ere egon bearra badet. *(aurreratuko dira biyak)*
MIGEL Nerekin? Atoz orduan aurrea. Zer dezu? Auzi gañian?
JOSE MANUEL Bai jauna, oraintxen nator andik. Auziyak ausi nau!
MIGEL Bildur nintzan. Ez al dezu esan ziñez, egiyetan etziñatela ari?
JOSE MANUEL Bai jauna, bai: beorrek esandako guztiyak aitortu ditut; bañan alperrik! Danok nere kaltez nituben: tabernariya, Ilario, Gergorio...
MIGEL Zer ziyoten ba?
JOSE MANUEL Apostura jator egin zala, nik ukatu nubela altxatuaz dirua galtzera nijualako, ta etzubela Landazuri'k urretan beteko zubenik agindu, baizik baita ere ala nai bazan.
MIGEL Gaizki, gaizki.
JOSE MANUEL Ain gaizki nun danak neri bota nazkiten... baita auzitako gastua ere.
MIGEL Danetara?
JOSE MANUEL Bi milla errial ondo juak.
MIGEL Etxerako alderdi ederra!
JOSE MANUEL Jas! Ederra!
MIGEL Emanda izango zeralako kito, bestela ez.
JOSE MANUEL Ez det asmorik, orain beñepen. Semearen soldadutza *pagatzeko* bear det diru ori. Bigar da azkeneko eguna, ta Joxetxo askatu nai det.
MIGEL Zure kaskarkeriyen gatik semia soldadu juatia ez da biziro egokiya; orain: itxoten badizu bestiak...
JOSE MANUEL Bearko! Nere Joxe ez da soldadu juango, bañan ortako beorrek ere, Migel jauna, egin bear nau beste eskar bat. Oyek gordiagatik ez det naiko dira eskuartean, ta nai nuke bi bat milla errial beorrek ematea.
MIGEL Gizona! Orrenbeste erori zera?
JOSE MANUEL Naikua aldi onetan; alaz ere ez beza kezkarik izan. Sagar urte ona da, alabaren soldata ere geldi lezake, ta azkenik lur puxka batzubek badira ta...

MIGEL Emango dizkitzut, bañan etzenuben zuk orretaratu bear. Inguruko onduena zuk atera bear zenduke, ta zabilta aspaldiyan txit oker.

JOSE MANUEL Naikua jauna.

MIGEL Badakizu zergatik? Tabernarako griña artu dezulako. A, Jose Manuel!, an galtzen dezute osasuna ta etxia. Lagun txarrekin alkartu, itzaldi zitalakin berotu, erariyakin gero sutu, ta bat-batian arkitzen zerate, gizon zeatelakuan, aur bat bañan okerro, zeonen burubaren jabe etzeatela. Demak, aposturak, erriyetak, asarriak, etxerako gogo txarrak, oker guztiyak, nundik, andik ezpada, dakaizkitzute?

JOSE MANUEL Jas!! Egiya da.

MIGEL Ain egiya!

JOSE MANUEL Bañan gizon arte pixka bat...

MIGEL Gizartia...? Tabernako eguerak gizontasunak? Edariz betetzia gizon artia? Gizona gizon dana ez du erariyaren laguntzarik biar gizon izateko.

JOSE MANUEL Ala da.

MIGEL A, nere gain balego! Galduko nituke gizarte oyek guztiyak (*patrikatik erlojua atera ta begiratuaz*). Iya amaikak... atera biarra det. Alaba ikusi nai badezu zuaz sukaldera.

JOSE MANUEL Ez, urrena ikusiko det; ni ere irtetera nua.

MIGEL Guazen ba (*juanaz*). Gizon artia beaz..? Ez, ez dira oyek gizon artiak, baizik gizonak galtzeko artiak.

LAUGARREN IRUDIA Lenguak eta Kandida

KANDIDA (*atetik*) Nagusiya.

MIGEL Zer dezu, Kandida?

KANDIDA Beste bi gizon zai dakaizki.

MIGEL Eztet ba beta aundirik. Zaudez or alabarekin eta beriala emango dizut dirua.

JOSE MANUEL Ez, bian itxongo diyot.

MIGEL Nai dezun bezela; begira Kandida, eman zayozu aitari amaiketako piska bat.

KANDIDA Betor aita.

JOSE MANUEL Ez neska, banian.

KANDIDA Zerbait artuta.

JOSE MANUEL Guazen ba.

KANDIDA Zer esango diyotet oyeri?

MIGEL Sartzeko ta apur bat itxonegiteko. (*juango da eskubitatik*)

BOSTGARREN IRUDIA

Kaxildo, Atanasio, gero Migel jauna bukaeran Kandida

- KAXILDO *(barrena izketan)* Ondo dago, itxongo diyogu.
(Aurreatuko dira ta eseriko dira maiyen aurrian alkarren onduan)
- ATANASIO Tori *silla*, Kaxildo.
- KAXILDO Eskarrikasko, Atanasio
- ATANASIO Esaten ari giñan bezela, gure seme oyek ez dira gaizki izango, osasuna badute beñepin.
- KAXILDO Baserri ederraren jabe egingo dira. *Probintzi* guztiyan ez da nere etxea beziñ onik; ba, dana Alipontxontzat izango da. Egiya, oraindik diru mordoxka bat bear det gure Tiodoro apaiz egiteko ta *partimoniyua* jartzeko, bañan ez du geyo bear. Naiko ta naiko *sakripiziyo* egin det ortaratzeko, besterik ez? beak ere ondo daki, ta beste gañeako guztiya Alipontxontzat da.
- ATANASIO Arrazoya beti arrazoi. Ori.
- KAXILDO Ta azkenian, zenbat emango diyozu ba zuk neskari?
- ATANASIO Nik geyo ere badituz; ayentzako ere kontuak atera bear dituz, aziko dira ta...!
- KAXILDO Esku utsik ez dezu beñepin alaba bialduko.
- ATANASIO Ez, ez, esan bezela arrio ederra an izango du, erropa zuriya, zurezko oi, koltxoi, armariyo, kopre, dana... *Alprojak* ere jartzeko asmoa badu nere atxuak, gu olakorik gabe izan bagea ere... Apaiz bat dan lekuan ez bai dira gaizki etorriko.
- KAXILDO Ondo esana. Ta dirutan?
- ATANASIO Ori... nere alabak makiña bat diru *baliyo* duben *abillidadia* berekin dama: *puntada* ederra du; beñepin an iduki nuben nik sei illabetian Donostiyan patrikatik ondo kostatzen zitzaidala.
- KAXILDO Etxeko *errepasorako* ez da txarra. Alaz guztiz ere badakizu andrea asieratik etxeako *gastua* dala, ta aurrera zer esanik ez, ta ordaintzeko aldea, ukullua pixka bat ondu edo, zerbait egiteko...
- ATANASIO Bear bezelako andrea danak beti egiten du baserriyan *palta*.
- KAXILDO Batek bai, besterik ezpada ere ganadu azpi batzuk egiteko, bañan len bat dala...
- ATANASIO Premiña oraindik pizkorra dakazu bai. Zoko batian baditu nere atxuak ontzako batzubek eta andik zenbaitzubek atera bearko... Ori! Emango dizkat ba... sei...

KAXILDO Gizona, besterik ez?

ATANASIO Makiñabatxo, gure *denborako dukatak* badira oyek.

KAXILDO Ala da; gutxiyagokin ezkondu nintzan ni bañon... nere etxea bezelako baterako ez da asko... Gutxitxo da.

ATANASIO Beste seme-alabarentzat ez det orrenbeste osatuko.

KAXILDO Ta zer diyo? Lendabizikuak jarri ditzagun oñ onian. Nere *mayorazgua* ez dakat nik sei ontzurren truk emateko.

ATANASIO Emango dizkat ba zortzi.

KAXILDO Zortzi? Gizona, eman zaizkatzu amar bat...

ATANASIO Amar e...? Gure atxua ez da gaur aixkire izango... (*eskuitatik agertuaz*) Egun on jaunak.

MIGEL (*altxiaz*) Bai beorri ere, egun on.

BIYAK Zer zabilzate? Berri onakin?

MIGEL Zer esango degu, Atanasio, ona ala txarra?

KAXILDO Ona ta txarra.

ATANASIO Ayen orde z gu bagiña bai ona!

KAXILDO Gu lenago ta gazteak orain, bakoitzak bere garayian; ori.

ATANASIO A! Ezkontzak ditugu, e? Zerbait badakit, bai...

MIGEL Bai jauna; ta nai genduke *papertxo* bat egin... gaur edo bigarko ere an izan deyen.

KAXILDO Arrazoi dezute: garbitasunak beñere ez du kalterik.

MIGEL Ori, ori.

ATANASIO Orain presaka naiz ba. Berdin al zaizute arratsaldian etortzia? Zer nai garaitan.

MIGEL Neri bai.

KAXILDO Bai neri ere. Etorriko gera gero.

ATANASIO Nayoko nuke ba.

MIGEL Bai, bai... arratsalde arte.

KAXILDO Noiz da ezkontza?

MIGEL Tiodoro'k meza ematian.

KAXILDO Laxter orduan?

MIGEL Bai, beak diyonez datorren illian. Emen dakat atzo artu nuben *karta*. Irakurri beza, irakurri, zer diyon. Beak esaten ziraden paper edo agiri ori egiteko (*utziko du makilla silla gañian patrikatik eskutitza ateratzeko*).

KAXILDO Ekatzu (*irakurriko du*).

MIGEL Atanasio, jiratxo bat egin bearko degu periyen?

KAXILDO Bearko... Uztarri bat erosi ta gurdi bat egin-arazi nai nuke ta.

ATANASIO Gurdi berriya?

KAXILDO Aurreneko aldiz nere Martina'ren arriua eramateko lotuko dana.

ATANASIO Etzaizu orduan aztuko orraziyetan erretxiña ematia?

MIGEL

ATANASIO Larga, larga ori neri ta nere atxuari. Txirriyo ederra eramango du.

MIGEL (*eskutitza biurtuaz*) Beti izandu da mutil zintzua.

KAXILDO Ez neria dalako, bañan gutxi bezelakua.

ATANASIO Orduan gero arte.

MIGEL Agur, zuazte ondo; eskumiñak etxian.

KAXILDO Eskarrikasko.

MIGEL Zaudezte, zaudezte... Zeñena da makill au?

KAXILDO Arranua! Neria. Bekar, bekar; makillik gabe ez du gizonak ixurik periyan.

ATANASIO Ori, ori. (*irteten dira biyak*)

MIGEL Berandutu zait. Jose Manuel'i agindu diyotan dirua artu bear det. (*eseri ta erekiko du maya, juaz aurrena mai gañian dagon zintzarriya*)

KANDIDA (*atetik*) Zerbait nai du?

MIGEL Datorrela aita.

KANDIDA Irten da; bian itxongo diyola esan nau.

MIGEL Ondo dago. Banijua.

ALTXAKO DA, TA IRTETEA KUAN JATXIKO DA OYALA

LAUGARREN AGER-ALDIYA
Erriko enparanza edo plaza

Ezkerretara eta eskuitara etxe errenkara batua. Aurrenekuan ezkerretan *Txakur-zulo* jartzen duben ardotegeya. Atzian agertzen dira Erriko-etxia *arkupeakin*, Eliza... Eskuitan da plazako sarrera eta ezkerretan atze aldian ere bai.

SEIGARREN IRUDIA
Pernando ta Pello

(Pernando'k bere asarrian itz egingo du oso zakar. Pello'k oso paketsu)

PERNANDO Ez ta ez. Nere beyak etzuben eztulik.

PELLO Zuk nai dezuna esango dezu, bañan nere etxian zortzi egunean ez da beya galdu; agiyan irabazi du.

PERNANDO Eztakit nere beyak, bañan zure urruxari bete dizkat nik saits-ezurak.

PELLO *(par-antzian)* Orrenbeste? Orduan kito gera. Ekarri nazu txala, artu zazu beya ta... beste bat arte.

PERNANDO Gezurra dek! Tratua tratua da.

PELLO Egiya; etzait *komeni* eta ez det azkendu nai.

PERNANDO Azkendu bearko! Erosteakuan ondo begiratzia zenduben.

PELLO Ta zortzi eguneko *prueba*?

PERNANDO Zer zortzi ta amar egun? Guk ez genduben orrelakorik aitatu.

PELLO Zer? Itza orrela jan?

PERNANDO Ez nazula ekartzen bat ori entzun zubenik?

PELLO Bat? Jose Manuel ta bere semea, gizona, gurekin ziranak.

PERNANDO Jose Manuel'ek ez du orrelakorik esango.

PELLO Beste geyo ere badira; zaude, ekarriko dizkitzut *(juanaz ezkerretatik)*.

PERNANDO Egiya esango dutenak?

PELLO Egiya? Bai gizona bai, ziñezko egiya.

PERNANDO *(begiratuaz juaten)* Billatu, billatu nai dituzunak; zuk baño lenago arrapatuko det nik Jose Manuel. Emen zaituko det noiz irteten dan Abogaduaren etxetik.

ZAZPIGARREN IRUDIA
Pernando ta Jose Manuel

- (Pernando jarriko da zaintzen Txomiñen tabernako atian, eta beriala agertuko da Jose Manuel eskuitan dagon Migel jaunaren etxetik).*
- PERNANDO Ara on nun dan. Ia nereganatzen detan... *(beragana juanaz)* Kaxo Joxe Manuel.
- JOSE MANUEL *(onek erantzungo diyo gogo txarrekin ta oso motz)* Kaxo Pernando.
- PERNANDO Bakarrik?
- JOSE MANUEL Bai.
- PERNANDO Guazen trabenara txiki-erdi bana artzera.
- JOSE MANUEL Eskarrikasko, ondo nago.
- PERNANDO Emen?
- JOSE MANUEL Emen.
- PERNANDO *(Oraindik ez da nerekin aiskiratu)* Bapo Jose Manuel... Ikusi al dezu gaur Pello?
- JOSE MANUEL Ez.
- PERNANDO Arren billa nabil ba. Nola gaur beyaren dirua ekarri bear didan... badakizu nola saldu niyon beya, ta tratua itxi genduen, ta gaur diruak ekarri bear nazkiyen...? Zure aurrian zan ba?
- JOSE MANUEL Bai. *(Jose Manuel atera dan etxetik bertatik etorriko dira Kaxildo ta Atanasio, ta mantso-mantso izketan juango dira Txomiñ'en tabernara)*
- PERNANDO Nik arri beya ta arrek neri txala ta iru ontzako. Bai... alaxen zan; orretan gelditu giñan, beste ezertan ez. Ezta egiya?
- JOSE MANUEL Zure tratuaeren berri neri galdetzen nazu?
- PERNANDO Galdetu edo, esan edo, ez al degu ba gure artean zerbait aitatu bear? *(Arrano au ez det irabaziko!)* Guazen gizona, txiki erdi bat eratera.
- JOSE MANUEL Esan dizut ez detala nai.
- PERNANDO *Meno, meno... meno, meno (egon piska bat Pernando burua azkuretuaz ta Jose Manuel'ek Migel jaunaren etxeruntz begira)* Ba, esan dizutan bezela, nik arri beya ta arrek neri txala ta iru ontzako, gaur bertan emateko kondiziyuakin...

ZORTZIGARREN IRUDIA
Pernando, Jose Manuel ta Migel jauna

MIGEL¹ *(patrikatik dirua ateriaz bañan eman gabe)* Jose Manuel.

PERNANDO *(Oi! Migel jauna... Entzun ote nau?) (Jose Manuel'i)* Esanak esan, gero arte.

JOSE MANUEL Agur.

PERNANDO Agur On Migel.

MIGEL Agur Pernando.

PERNANDO Zu, Jose Manuel, noiz dezute ari jokua? *(Jose Manuel'ek ezpañak estutu ta keñu egingo diyo juateko).* Ez al dezute ba orain?

JOSE MANUEL *(Pernando'ri ixilikan).* Ez.

PERNANDO Zer ari dira ba trabenetan esaten?

MIGEL Zer diyo orrek? Zer joku aitortzen du?

JOSE MANUEL Eztakit.

PERNANDO Eztakizula? Ez al dezu ba zuk jokatu bear Ilario'ren ariyarekin?

JOSE MANUEL Nik? Ariya naizela uste al dezu zuk? *(ixilka jotzen egiñaz).* Ez bazuaz emendik...!

PERNANDO Zu, zu, badakigu, gizona, etzerala ariya, bañan ez al dakizu ba zer esan nai detan? *(poliki-poliki marmaizuan juango da tabernara)* (arrano ori... beti berdin dala nerekin).

MIGEL Jose Manuel, zer entzuten det? Ori ere badegu? Berriro naste oyetan sartu zera? Aski ez dezula azkeneko dema, larunbateko apostura, auziya galdutzia, orain berriz ari-jokua egitera zatoz? Nere arrazoi guztiyari *amen* egiñaz, uste nuben zuzentzeko asmuak artuta zeundela ta, Jesus neria!, orain bertan zatoz jokura ta... neonen diruakin! *(erakutsiyaz)* Semiaren errukitza aotan artuta atera nai zizkiatzunakin!

JOSE MANUEL Jauna, ez da egiya, semearentzat ditut. Ari-jokua egun atsegabeko artan sortua da; damu det jokatu bearra bañan itza emana dakat eta...

MIGEL Eta... zer?

JOSE MANUEL Jokatu egin bear detala.

MIGEL Jokatu egin nai dezula. Ori.

JOSE MANUEL Jauna!

MIGEL Ukatu zazu naiz siñalia galdu.

JOSE MANUEL Ezin nezake.

MIGEL Ausi nola nai.
(Migel oso gogor, Jose Manuel oso apal)

¹ Ezkerra-eskuitara, Pernando, Jose Manuel

JOSE MANUEL
MIGEL

Ezta... jokatu egin bear det.
Jokatu, jokatu... ikusiko degu.
(bizkor-bizkor irtengo da eskuitatik, geldituaz Jose Manuel bakarrik berari begira; irtengo zayo negarra ta ezkutatuko du arpegiya eskuartian).

BEDERATZIGARREN IRUDIA

Gergorio, Pernauto, Lukas, Landazuri ta Ilario

(Entzungo da ardotegiyan erriyetako ots ta bulla aundi bat, eta irtengo dira zalapartaka aurrena Gergorio ondorendik beste batzubek ditubela ta gero Pernauto ukabilla altxata ura arrapatu nayian, bañan elduko diyote ta edukiko dute derriorrian ate aurrian. Abek irteten diradenian sartuko da Jose Manuel ardotegiyan).

GERGORIO

Ja, ja, ja! Orrek ni arrapatu? Ala dek bai! Jau!!
(kabriola egiñaz).

PERNANDO
LUKAS

Ilko at, txatxu zitala!
(Pernauto geldituaz) Zaude emen; eutsi, eutsi.

GERGORIO

Atoz ba arrapatzera.

PERNANDO

Laga neri, laga, eman dezayotan begi ondoko bat.

GERGORIO

Nik zuri eman dizutan añakua? Ja, ja, ja!

PERNANDO

Utzitzeko neri. Utzi azkar. (...)

GERGORIO

Ai, ai, ai! *(igas egingo du zalaparta aundiyan, ta geldituko da bildurrak artuta atze-atzian osoro ezkutatu gabe. Danak parrez).*

PERNANDO

Ara gizona igasi.

LANDAZURI

Gizona? Nai likek... gizona.
(danak parrez).

LUKAS

Ilario, ari bikaña dakark.

ILARIO

Ola ba, ola ba... Ikusi egin bearko.

LUKAS

Mardula zio.

PERNANDO

Tapetako bikaña emango du onek, bikaña.

LUKAS

Landazuri, zeñen alde zera gaur?

LANDAZURI

Onen alde. (...) Amar duro Ilario'n ariyaren alde!

ILARIO

Ez al da Jose Manuel etorri?

PERNANDO

Bai, emen zan.

ILARIO

Ariya nun du?

PERNANDO

Eztiyot ikusi.

LANDAZURI

Datorrela ba, garaya da ta.

LUKAS

Egiñ akuyok oju Pernauto, barrenan zio.

PERNANDO

Nik? Ua eorri! *(agertuko da Jose Manuel tabernako atian ondoren ditula Kaxildo ta Atanasio)*

ILARIO

Ara Jose Manuel.

LANDAZURI

Amar duro onen alde!!

(jaremonik eman gabe etorriko da Jose Manuel erdira)

AMARGARREN IRUDIA

Lenguak, Jose Manuel, Nikasio ta Atanasio

ILARIO Non dezu ariya?
JOSE MANUEL Etxian; dijuala bat billa.
LANDAZURI Ogei duro onen alde!
PERNANDO *(Jose Manuel'i) Ez al dezu entzuten? (begiratu zorrotz bat erantzun gabe)*
LUKAS Etxian al dakazu? Ez al du semiak ekarriko?
JOSE MANUEL Ez, dijuala norbait billa.
LUKAS Gergorio juango da. Gergorio, ator.
GERGORIO *(beti urrutitik) Zer? Zer?*
LUKAS Ator onera.
GERGORIO Pernando'ri begi-ondoko bikain bat eman gabe ez.
LUKAS *Telegrapoz eman bear al diyok? Atorria onera, atorria, ezтик ezer egingo.*
JOSE MANUEL Ator... *(inguratuaz kezka apur batekin) Ua nere etxera, ta ekarri zak ariya.*
GERGORIO An nijua; beriala emen naiz.
LANDAZURI Ogei duro onen alde!
LUKAS Bale!
(juango dira danok atzera ta jarriko dira izketan ariya erdiyan dutela, gelditurik bakarrik aurrian Jose Manuel ta Landazuri)

AMAIKAGARREN IRUDIA

Lenguak Gergorio gabe

LANDAZURI Zuk ere ariya ikusi bear al dezu jokatzeko?
JOSE MANUEL Nik ikusiko det nai detana ta jokatuiko det bear badet.
LANDAZURI Prestuba zatoz gaur.
JOSE MANUEL Gaur ta beti.
LANDAZURI Bai obe!
JOSE MANUEL Zer?
LANDAZURI Larunbat gabian etzenuben gizon prestubaren antz aundirik eman.
JOSE MANUEL Jas! Zu baño leyalago nebillen orduan ere.
LANDAZURI Loyalago? Ta noiz eman bear nazu dirua?
JOSE MANUEL Nik zuri?
LANDAZURI Bai: zuk neri.
JOSE MANUEL Nik?
LANDAZURI Zuk.

JOSE MANUEL Eundo ez!
LANDAZURI E! Zer esan dezu?
JOSE MANUEL Entzun dezuna.
LANDAZURI Esan zazu berriz.
JOSE MANUEL Zer? Ez dizutela emango? Baita zazpi aldiz ere.
LANDAZURI *(bata bestiaren gañian ta gorroto aundiya erakutsiyaz)*
Jose Manuel!
JOSE MANUEL Landazuri!
KAXILDO *(aurretartuko da ta ixilik Jose Manuel'i)* Jose Manuel,
Azpitiyan jokatu zendun ariya bera al da?
JOSE MANUEL Bai.
KAXILDO *(Atanasio'ri)* Au baño geyo da ura.
LANDAZURI Amar duro ari onen alde!
KAXILDO Jokatuko al ditugu pesta batzubek?
ATANASIO Zergatik ez?
KAXILDO Bost duro Jose Manuel'ena mendeatu ezetz.
LANDAZURI Bayetz.
KAXILDO Ezetz.
LANDAZURI Badijua.
KAXILDO Bota.
(apostura abek egin bear dira bizi-bizi, entzunaz, danak batian, ojuak eta diru soñuak; batez ere Gergorio'k sartu bear dubenian iruditegiyan daudezen danok egingo dute trabesa)
ATANASIO Bostgarren golpeako ukatu bayetz onek.
LUKAS Bostgarreneako, ezta ogeikin ere.
ATANASIO Amabi ezetz, bost duro.
LUKAS Ogei bayetz.
ATANASIO Bota.
LUKAS Bota.
PERNANDO Atzetikan ere jo bayetz.
KAXILDO Ezetz. Zer jo bear du?
LANDAZURI Beste bost.
ILARIO Bota nerekin ere.
LUKAS Bota.

.....
.....

AMABIGARREN IRUDIA Lenguak eta Gergorio

GERGORIO *(dator laxterka ta aznazeka ta sartuko da ojuka danen erdiyan)* Ez da, ez da ari jokurik!
(danok arriturik)
LUKAS Zer esaten dek?

GERGORIO Gaur ez dala arijokurik... aririk ez dalako.
JOSE MANUEL Zer esan nai dek itz oyekin?
GERGORIO Zure ariya eskaatzian illa dago.
JOSE MANUEL *(arrituta, oso pizkor)* Nola?
GERGORIO Aizkoraz burua irikita.
JOSE MANUEL *(indar aundiyakin)* Nork il du nere ariya?
GERGORIO Ez dakit, ez naute esan.
JOSE MANUEL *(indarrez danari)* Nork il du nere ariya?
LANDAZURI *(poliki-poliki aurreatuaz)* Zuk.
JOSE MANUEL Nik?
LANDAZURI Zuk, gaur ez jokatziaeren gatik.
JOSE MANUEL Gezurra!!
LANDAZURI *(itz egingo du zorrotz miñ emateko antzian bañan beetik)*
Itz polita gizonen aurrian esateko!!
JOSE MANUEL Zaude ba zu ixilik.
LANDAZURI Egizyak miñ ematen du... garratza bai da!
JOSE MANUEL Gezurra berriz loya, ta esaten dubena bera zikintzen du. Ta zu, ez gizona baizik ontza zerana, gabeko pristi madarikatu arren antzera, begiyak botiaz gizarajoen baten argalkeriyak arrapatu nayian beti ernai zabiltzana... zu, zu zera gezurtiya.

LANDAZURI Berritsua zaude gaur.
JOSE MANUEL Ta zu likitsa. Nik ill ariya?
LANDAZURI Zuk! Onera ez ekarriyak, dirua trabesetan jarri nai ezak, bestez billa bialduak, ez al digu naikua erakusten?

JOSE MANUEL Ez.
LANDAZURI Bai.
LUKAS *(erdiyan sartuaz)* Geldi, geldi...
LANDAZURI Nork il du ba zure ariya? Erantzun zazu... Nork?

AMAIRUGARREN IRUDIA

Lenguak, Migel jauna, Joxe ta Pello

(Migel jauna ta Joxe sartuko dira eskuitatik. Pello geroxiago atzetik)

JOXE² *(Migel jauna atzetik dubela)* Nik!
DANAK Semia!!
JOSE MANUEL *(oso asarre)* Zer esaten dek?
MIGEL *(aurreatuaz)* Nik aginduta!
JOSE MANUEL *(Ezkerretara bilduaz)* Migel jauna! Au lotsa!
LANDAZURI Nolako Perutxo, alako Maritxo.
PERNANDO Ori, ori.

² Ezke-Eskuit. Jose Manuel, Lukas, Landazuri, Joxe eta Migel jauna. Atzian Fernando, Ilario, Pello...

MIGEL Zer esan nai dezu?

LANDAZURI Arakintzan baño letradutzan obe lukela sayatu, agiyan zer ikasi geyo izango du artan.

PERNANDO Ori, ori, nik ala uste.

MIGEL Zuben irakaslia izateko bai; zuben gezurrak eta aziyo txarraren zuzen agiriyak billatzeko bai... bañan bide orretatik ez det ibilli nai. Orretarako zu zeoni naikua zera, ta azkenik laguntzeko artu zenezazuke Pernando. Txit yayua da, batez ere beyari eztula sortzen.

PERNANDO *(gogor)* Nik saldu nuben beyak etzuben eztulik.

PELLO Zure beyaren gain gero itz egingo degu.

PERNANDO Arrayia! Emen al zan au?

LANDAZURI Nai dubena esango du, bañan jakin dezatela guztiyak gaur ez dala jokorik ez beorreatatik, baizik Jose Manuel'en gatik; berak jakingo du zergatik utzi duben ariya etxian.

JOSE MANUEL Beste egiteko bat nubelako.

LANDAZURI Makiñabat badituzu, nai badituzu bete.

JOSE MANUEL Beteko ditut nai ditudanak.

LANDAZURI Neria aurreneko. *(Oju aundiyakin)* Zor nazubena, auziyan agindu dizutena, ostu nai izan zizkiatzun bi milla errialak... ekaizkitzu beriala!

JOSE MANUEL Ostu? Jas!

LANDAZURI Bai, jua dan larunbat gabea ostu, lapurtu.

JOXE *(Nere aita danen aurrian lapurtzat egin!)* *(patrikatik diru-paper mordo bar ateriaz ta Landazuri'ri emanaz)* Zure bi milla errialak, tori!

MIGEL Zer ari zera? Nik soldadutzako eman dizkitzudan dirubak eskaintzen dizkatzu?

JOXE Bai, soldadu juango naiz; eztet nai nere aitari iñork orrelakorik erantzuteik; ori zuria bada... Aita, etxian dubenekin osatuko du beorrek Migel jauna.

JOSE MANUEL Nere semea soldadu!

PELLO Ez, zure semea ez da soldadu juango. Nik emango dizkat bi milla errial. Eta zu lotsatu nai zinduzten guztiyak entzun dezatela. *(aotsa iguaz)* nere alaba Mikela'rentzat eskatzen dizut zure semea.

JOSE MANUEL Eskarrikasko, Pello; zuk zabaldu ta alaitu nazu biyotza. Zu zera gizona!

MIGEL Zu ere izango ziñake lagako bazinduzke ardoteigiko bidiak.

LUKAS *(dirua erakutsiyaz)* Ta jokuko siñalia?

JOSE MANUEL Ilario'na da; eman berari.

ILARIO Onen aldera, guazen danok zurrutera.

GERGORIO Guazen... Aupa! (...)

MIGEL

(ikusirik ayek tabernan sartzen ta beste irurok eskuitatik etxe aldera artzen) Gizon artea, gizon artea, zein ote da egizko gizon artea: au ala ura? A, zulo madarikatuak!

AMAITU DA